

ERREPORTAJEA EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA EGITEKO AUKERA ELGOIBARREN
GEHIGARRIA ENRIKE LARRAÑAGARI ELKARRIZKETA · KULTURA SAN ANTON JAIEN ERREPASOA

Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA

Euskal Herria



Z4523902D

IZENA	ZUHAITZ
LEHEN DEITURA	GURRUTXAGA
BIGARREN DEITURA	LOIOLA
HERRIA	ELGOIBAR
UDALA	ELGOIBAR
HERRIALDEA	GIPUZKOA

IGORLEA: UDALBILTZA JAIOTZE URTEA 1980
jaulkitze-data 2003-01-24 iraungitze-data 2013-01-24

EHNA (EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA)

EUSKAL SENTIMENDUA POLTSIKOAN

BASKO RENT

GARBIKETA · MANTENIMENDUA · AUTOEN ALOKAIRUA

MANTENDU EZAZU ZURE AUTO GA B1 eta PREST!



GARBIKETA AUTOMATIKO
PUBLIKOA




**GARBIKETA
2,50 C**

GARBIKETA LEHORKETA

ARGIZARIA EMATEA

3,50 ☐

ESKUZ EGINIKO
GARBIKETA



**GARBIKETA
BEREZIA
4,50**



HORREZ GAIN:

OlioarEn Edo filtroEn aldakEta
PnEumatikoEn aztErkEta eta aldakEta
BalaztEn eta EsEkidurarEn aztErkEta
MantEnimEndu orokorra

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar

fr 902 103 287

40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA



3 1963an Elgoibarko Izarra

Aurreko astean esan genizuen moduan, Ongarri Kultur Elkartearen jarduna gaztelaniaz zelako sortu zen Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte 1963ko martxoan. Baina, zertarako sortu zen Elkarte? Batetik, euskal kultura indartu nahi zelako, eta, bestetik, euskal kultura euskaraz bultzatu behar zela erabaki zutelako orduko euskaltzaleek.

Ez zen ideia aldrebesa izango. Izan ere, Elkarte sortu eta urtebetera 1.400 bazkide lortu zituen Elgoibarko Izarrak. Jendea lanerako prest zegoen eta denek ordaintzen zuten kuota bat bazkide izateagatik. Hori bai, bakoitzak bere neurriko kuota zuen, batzuek hilean duro bat ordaintzen zuten bitartean, bazen hilean hamar duro ordaintzen zuenik ere.

Gainera, Felixek akorduan dauka orduan alkate zen Ajubitak ere lagundu ziela. Trabarik behintzat ez ziela jarri, eta hori asko zen garai hartarako.

Zeintzuk sortu zuten Elgoibarko Izarra? Hasi Felix Etxeberria eta Jesus Larrañaga hasi ziren tiraka, baina berehala elkartu zitzairen Sabin Osoro. Halere, ez pentsa hiruren kontua bakarrik izan zenik. Atzetik euskaltzale talde bat zuten: Luis Gurrutxaga, Jose Antonio Iriondo, Jesus Bilbao eta beste batzuk ere han izan ziren.

Amaitzeko, Ikastola ala Elgoibarko Izarra sortu zen aurretik Elgoibarren? Ikastola 62an sortu zen eta Elgoibarko Izarra 63an. Baina une askotan ikastola eta Elkarte bat izan ziren eta hortik dator nahasmena. Datorren astean kontatuko dizuegu nola sortu zen ikastola Elgoibarren.

Felix Etxeberria eta Imanol Larrañaga

iritzia



Aznar lehendakari

Handigorik ikusiko ez genuela pentsatzen genuenok, asteburuan barrena jakitera eman diren iragarkiek oker genbiltzala erakutsi digute. Amorratu irakurtzen ditut egunkariak ahalik eta berririk gehien neregatzen saiatzen naiz, albisteak ikuspegi ezberdinetatik aztertzen. Oraingoan, ostera, bakar batek jaso du nire arreta nagusia: Aznar Bilboko Udaleko hauteskundeetarako zerrendagai! Ene, ene!

Legez ez du inolako eragozpenik, eskubidea du, alegia. Beraz, alde honetatik ez dago kritikarik. Betiko haundi-usaiek in iragarri du, efeko handia sortu nahian, harrokeriz, nahiz eta umiltasunez jantzi nahi izan duen. Baina zilegi du, eta hor ez dago eztabaidarik.

Bere alderdikideek utzi dute izendapena erabat barregarri. Bilbotarraren biloba eta nafarraren semea dela, Bilbon bertan badagoela Edificio Aznar deritzaiona, EAJren egoitzaren ondoan dagoena gainera, eta aurrekoengandik datorkion bilbotasunak hemengo abertzale asko baino euskaldunago bihurtzen duela. Nahikoa dugu! Bide horretatik jarraituz, nik neuk ere Lanzaroten dagoen Arrieta herrixkarako alkatetzarako zerrenda aurkeztu dezaket agerikoak diren arrazoiengatik, edo eta Fidel Castro berak ere Vigon, Muxian edo Allarizko erroldan izena eman ostean Galiziako Xuntarako lehendakaritzarako kandidatura aurkeztu dezake, bere arbasoak Galiziatik Cubara joandakoak direla azalduz. Eta modu berean Athletic-ak jokalariz hornitzeko baliatzen den harrobia ere Ertamerikan eta Hegoamerikan haunditu lezake, han dabilzan futbolari askoren euskal jatorrizko abizenak ez baitira ziuraski bertan asmatuak.

Gotzon Arrieta

KeXak	5
motz MOtZ	8
gehigarria	
kiRoIAk	20
aGenda	24

BARRENI KEXA

Nire kexa azaldu nahi dizuet 2003ko urtarrilaren 16ko Barren aldizkarian "Eskutitzak" sailean agertu ziren bi gutunak nik bidalitakoak balira bezala agertzen direlako eta nik lehenengo baino ez nuen bidali. Gainera lehenengo hau, duela hilabete baino gehiago bidalitako gutuna da (2002ko abenduaren 12an) eta duela hilabete inguruko kontuak aipatzen ditut gutunean. Hilabete luzea pasa ostean mezuek zilegitasuna gal dezakete, baldin eta gutuna noiz idatzitakoa den aipatzen ez bada.

Enetz Ezenarro Arriola
N.A.N. 15386270Y

Oharra

Pasa den asteko eskutitzen atalean egin genuen akatsa dela-eta, barkamena eskatu nahi diegu eskutitzak idatzi zituztenei eta irakurleoi. "Txomin Aranberri Mendaroko Euskerako Udal Zinegotziari... ipuin lehiaketari buruz" eskutitzaren sinadura oker zegoen. Bere sinatzailea A.TX. 15351910P zen,

MENDARO TELEBISTA HERRITAR GUZTIONA DA

Pasa den astean astekari honetan azaldutakoaren harira, Mendaro Telebistatik zera esan nahi dugu. Lehenik eta behin, errespetatzen dugula herritarren iritzia eta telebista gustukoa izatea edo ez bakoitzaren arabera dagoela. Egiten dugun lan guztia denon gustukoa izatea oso-oso zaila da eta kritikak ere, beti ere aurrera egiteko badira, geureganatuko ditugu.

Mendaro Telebistan herritar GUZTIAK dute kabida. Inori ez diogu galdetu norberaren ideologiari buruz, Beste gauza bat da jende askok telebistarekiko aurreiritziak izatea, eta iritzi horiek medio, bertan parte hartzerik ez nahi izatea.

Gure lana ahalik eta ondoen egiteko ahaleginetan gabiltza Mendaroko Telebistako lankideak. Bertatik, herriko EDOZEIN talde, partikular edo elkarteri ateak zabaldu nahi dizkiogu. Eta bukatzeko zera esan nahi dugu: zure eskutitzean horrela amaitzen zenuen: "Aurkituko ote dute Mendaro Telebistakoek elkarriketatzea merezi duen eta Olaso ez den beste inor?" Sentitzen dugu urriaren 11tik hona egin ditugun saio, erreportaje edo elkarriketa guztietatik birekin besterik ez gelditzea. Gu behintzat, ez gara inor, Mendaro Telebistan ateratzea nork merezi duen edo ez esateko.

Gauza batean arrazoia ematen dizut, ez da erraza Mendaro bezalako herri txiki batean era honetako proiektu bat aurrera ateratzea baina horretan gabiltza eta herritar guztion laguntzarekin gauzak ondo egitea espero dugu. Gero, hartzen duen bidea gustatu ala ez, beste gauza bat da.

Bukatzeko, herritar guztiok gonbidatuta zaudete Mendaro Telebistan parte hartzera.

Mendaro Telebista

Urruzunoren begi ezkutua

Gizon hura



Larunbat gaurik ez zen gizon hura taberna guztietatik azaltzen ez zela. Ate ondoan geratzen zen gehienetan, lepoa

luzatu eta azken txokoa begiz kontrolatu arte;

bestela barruraka pauso batzuk behar izaten zituen bere bilaketa osatzeko, eta komuneraino iritsi beharra zeukan aldiak ere baziren. Luze gabe, sartutako atetik itzultzen zen beti. Lehen orduan eta azkenean, gogo berdinarekin irekitzen zituen ateak; gauero sei, zazpi, zortzi aldiz ikusten genuen. Pauso luzeekin egiten zuen aurrera, inori ezer esateke. Zurrumuruak, hipotesiak eta beste zenbait txantxa hedatu ziren, gizon hartaz eta bila zebilen pertsonaz.

Gero, urteak joan ziren, urte asko. Irain egiten zioten gazteak nagusitu ziren, tabernak aldatu zituzten, erbesterratuak bueltatu ziren eta ume berriek hartu zuten gauaren testigantza. Baina larunbat gaurik ez zen gizon hura taberna guztietatik azaltzen ez zela. Bihotza ez beste arrazoi guztiak izorratu zitzaizkion.

Geroago, denboraren higadura gaindiezina zenean ia, larunbat gauari agur esan zion, ordurarteko konstantzia beraz, betirako desagertu baitzen. Ganora gutxiko zenbait esames eta bete ezinezko hutsune handi bat baino ez zituen utzi. Larunbat gauetan ate zabaldu berriei erreparatzeko ohitura eta bila zebilen pertsona ni nintzenaren zalantza.

Mikel Artola

ASTEKARIA

BaRRen

Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
• 943 74 41 12
Publizitatea:
rr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
AFIGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarn

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA Irati Agirreazaldegia, PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTAA JOG Pelli Urigüell KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edume Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INRRIMATEGLA Gerlu Koop. E. TIRADA 4.100 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
era Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



kutxa
zun ,skti

DANOBAT
LUQUINAS MES*1.17.

fr> GOITI
GRUPU DANOBAT

EITARTA

+ Gazte batzuk esan digutenez. Leku Ederreko parkea arratoiz beteta dago: "askotan egoten gara bertan jolasean, eta arratoi mordoa ikusten ditugu. Zulo asko daude, eta badirudi lur azpitik pasabidea eginda dutela. Udalak zerbaitegin beharko luke, herriko txoko asko baitaude arratoiz beteta, eta nazkagarriak izateaz gain, arriskutsuak ere badira".

||>



* Gizonezko batek Kultura departamenduaren kontrako kexa bat ekarri digu, "El club de la comedia" saiorako sarrerak aurrez erosi ahal zirela abisatu ez zutelako: "jende mordoa gelditu zen Herriko Antzokira sartu ezinik, eta ez da lehenengo aldia, Louviers taldea etoni zenean ere gauza bera gertatu baitzen. Hain zaila al da programazioan sarrerak aurrez eta non erosi behar diren esatea? Jende guztiak ezin ditu sarrerak aurrez erosi, beraz, txarteldegian ere sarrerak saldu beharko lituzkete. Oso gaizki jokatu dute oraingoan".

* Emakume batek azaldu digun moduan, Sigmako Poligono Industrialeko lorategiak ez dira zaintzen: "mila aldiz joan naiz udaletxera, eta ez didate kasurik egiten. Konponduko dituztela esaten didate, baina ez dituzte Sigmako Poligono Industrialeko lorategiak zaintzen. Bada ordua agintzen dutena betetzeko".


©111AIAX

- Noiz ireki behar dute Gazte Lekua? Gazte batzuk esan digutenez, hainbat herritan gazte lokalak zabaltzen ari dira, eta Elgoibarren noiz ireki behar duten jakin nahi dute. Udalera jo dugu, eta esan digutenez momentuz ez dago Gazte Lekua zabaltzeko asmorik. Lehenago egin omen zuten saiakera bat, baina ez zuten lokal egokia bilatu, ezin izan zuten ireki. Proiektua eskuartean daukatela gaineratu digute, eta ahal duten guztia egingo dutela azaldu digute.




Euskal Herriko

EHNA ccitckc



Duela hilabete inguru ireki zuen Udalbilizak Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) egiteko lokala Santa Ana kalean. Baina zer da EHNA? Izenak argi adierazten duen moduan, Euskal Herriko Naziotasuna Aitortzeko agiria da. EHNAREN bidez edozein herritarrek bere euskal naziotasuna nonahi eta noiznahi aitortzeko dezake. Euskal Herrian 30.000 inguru dira dagoeneko EHNA eskatu dutenak. Elgoibarren gauzak nahiko motel doazela azaldu digute arduradunek, baina interesatuek denbora dute oraindik, Udalbiltzaren lokala martxora arte irekita egongo da eta. Ordutegia: Astelehena eta asteazkena, arratsaldeko 18:30etik 20:30era, eta larunbata goizeko 11:30etik 13:30era.



**Tomas Mugerza
Mireia Isasmendi**

**"EHNA egiteaz gain,
jendeak erabiltzea da
gure helburua"**

onelako lehenetarikoa izan da honelako bulegoa zabaltzen, baina oliki-poliki, beste herri askotan ere martxan jartzen hasi dira. Tomas Mugerza eta Mireia Isasmendi ekarri ditugu gaurkoan gure artera, eta beraiek azaldu dizkigute EHNAREN nondik norakoak. Beste kide batzuekin batera, bi hauek izan dira gure herrian Udalbiltzaren ekimen hau bultzatu dutenak.

Zer da EHNA? Euskal Herriko Naziotasun Aitormena. Nolabait esateko, euskalduntasuna frogatzeko dokumentu bat.

Zein pausu eman dituzue ekimen hau martxan jartzeko? Lehenik eta behin Udalarekin kontaktuan jarri ginen. Lokal bat eskatu genion, baina ez genuen erantzunik izan. Beraz, lokala guk alokatu behar izan genuen. Gipuzkoan Zestoa izan zen honelako lokal bat martxan jarri zuen

lehenengo herria, eta apur bat beraien esperientzia kontuan hartuta ekin genion geuk ere.

Noiz arte egongo da Udalbiltzako bulegoa irekita? Abenduan ireki gendun lokala, eta printzipioz otsaila bukaera edo martxora arte egoteko asmua dakagu. Hala ere, ondiokan jende asko EHNA eitzeko asmuakin daukara ikusten badogu, epia luzatzeko ez da arazorik.

Zenbat jende animatu da Elgoibarren? Momentuz 130 pertsona inguru etorri zaizkigu. Gure ustez, milara iritsiko gera. Denetariko jendea animatu da, gazteak, nagusiak, eta lanbide mota guztietako jendea. Gehienak elgoibartarrak izan dira, baina kanpotik ere etorri dira batzuk, Mutriku, Eibar edo Lasturretik, esate baterako. Egixa esanda, guk nahiko genduana baino motelago dixe asuntua. Jende

asko etortzen da zer ein bihar daben galdetzerara, baina karneta eitzera ondiokan gutxi animau dia. Igual amaieran etorriko dia danak batera.

Zein balio dauka EHNAK? Danon artian baliva ematen saiatu bihar gera. Geuk ematen diogun baliva dauka. Euskal Herri mailan espero dogu toki gehixenetan onartua izatia, baina hori ez dao gure esku. Banketxe batzuetan onartzen dabe, eta hainbat papeleo betetzerako orduan ez dabe arazorik jartzen. Ertzainek ere onartzen dute, baina hori pertsonian araberako kontua da, hau da, ertzainak berak daukan pentsamentuan arabera, onartuko dau edo ez. Zenbat eta jende gehixok atera eta zenbat eta gehixo erabili, balio haundixaua eukiko dau. Gure helburua EHNA eitziaz aparte, jendiak erabiltzia da. Momentuz etorri dian gehixenak balio sinbolikua edo sentimentala hartu dabe kontuan. Gure nahia ofiziala izatia da.

Maziotasun Aitormena

Dulcgoa martxora arte econgoc a irekita




ZER BEHAR DA EHNA ESKURATZEKO?



- 1. Padriaren agiria:** Udaletxean inolako arazorik gabe eskuratu daiteke.
- 2. Hiru argazki:** Karnet tamainakoak, berriak eta fondo txuriarekin.
- 3. Ordainketa egin:** 12 euro ordaindu behar dira Euskadiko Kutxako 30350135921350011892 kontuan. Langabetu eta ikasleek 6 euro.
- 4. Padriaren agiria, hiru argazkiak eta bankuko ordainagiria** Udalbiltzako bulegora eraman eta bertan EHNAREN eskaera orria bete.
- 5. 45 egunen buruan, bulego berean EHNA jaso.**

Carlos Ansola

**"Ez dakit noiz eta nola,
baina EHNA erabiltzeko
asmoa daukat"**



13^{en} elgoibartar inguruk egin lidute EHNA, eta horietako bat Carlos Ansola izan da. Carlosek azaldu digunez, ez du inolako dudarik eduki EHNA egiterako orduan, eta elgoibartar guztiak animatu nahi ditu EHNA egitera. Bere ustetan, euskaldun sentitzen diren guztiek egin beharko lukete EHNA.

Zergatik erabaki zenuen EHNA egitea? Neretzako euskalherritartasuna aldarrikatzeko modua da. Gainera, Estatu Espainiarrak eta Frantsesak Abertzaletasunaren kontra daramaten borroka eta kanpaina horren aurkako desobedientzia zibil eta paketsu bat da. Beste era batera esanda, kanpaina horrekin ados ez nagoela azaltzeko modua da. Bestalde, atzerrira joaterakoan nongoa naizen galdetzen didatenean, beti aldarrikatzen dut euskalduna naizela, eta EHNA da hori azaltzeko modu egoki bat.

Zertarako erabiliko duzu EHNA? Oraindik ez dakit zein erabilpen emango diodan. Ez dakit noiz, non eta nola erabiliko dudan, baina erabiltzeko asmoa behintzat, badaukat. Kasu askotan badakit

bi agiriak eraman beharko ditudala, baina lehenengo EHNA erakutsiko dut.

Guardia Zibilen kontrol batean, zein erakutsiko zenuke? Espainia Nortasun Agiria erakutsiko diet. Horiekin ez dago txorakeriarik, eta badaezpada, ez nintzateke arriskatu. Baina Ertzainek dokumentazioa eskatzen badidate, bertakoa erakutsiko diet, eta espero dut arazorik ez edukitzea.

Egunen baten EHNAK izango al du benetako balioa? Kontu hau Euskal Herriko egoera politikoarekin lotuta dihoa. Esperantza eduki egin behar da, eta denon artean EHNARI benetako ofizialtasuna ematen saiatu behar gara. Euskal Herriko hizkuntza euskara dela aldarrikatzeko saiakera bat da. Euskaldun sentitzen garen guztiok egiten badugu EHNA, agian egunen batean lortuko dugu benetako balioa izatea.

Benetako baliorik ez duela jakinda, 12 euro ordaintzeak merezi al du? Bai, dudarik gabe. Oso gauza erraza da, inolako arazorik gabe egin daitekeen kontua, eta zenbat eta jende gehiago animatu, hobe.

Guillermo Garate alkatea ez da EAJko zerrenda-buru izango datozen Udal Hauteskundeetan

Marivi Agirregomezkorta izango da EAJko zerrenda-burua

Guillermo Garatek bi legealdi bete ditu Elgoibarko alkate modura. Zortzi urteren ostean, EAJ alderdiak aldatzeko momentu egokia dela erabaki du. Imanol Santos, Elgoibarko EAJko presidentea esan digunez, "herriak aldaketa bat behar du, eta orain da momentu egokiena". Imanol Santosek, Guillermo Garatek egindako lana goraiatu zuen: "oso gustora gaude Guillermod alkate moduan egin duen lanarekin, gauza ugari lortu ditu, baina zortzi urte nahikoa direla uste dugu".

Joan zen astean egin zuen batzarra EAJk Guillermo Garateren ordezkaria aukeratzeko. Alderdiak Marivi Agirregomezkorta proposatu zuen, eta herriko afiliatuen aldetik beste proposamenik etorri ez zenez, bera izango da datorren maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetan EAJ alderdiko zerrenda burua. Apustu garrantzitsua egin du EAJk, izan ere, bera izango baita lehenengo



Pleno batean ateratako argazkian Guillermo Garate alkatea (eskuman) eta Marivi Agirregomezkorta, Ogasun Batzordeko presidente moduan, ikus ditzakegu.

emakumezko alkategaia Imanol Santosek azaldu digun moduan, "emakume eta gazteen partaidetza bultzatu nahi dugu". Marivi Agirregomezkorta Ogasun Batzordeko presidentea da gaur egun. Imanol Santosek esan digunez, bere

esperientzia eta emakumezkoa izatea baloratu dira.

Gainontzeko alderdi politikoetara jo dugu, eta oraindik zerrendak osatzen ari direla adierazi digute. Zerrendaburuen izenak ezagutu ahala jakinaraziko ditugu.

Herriko hainbat bizilagun larunbat arratsaldeetako giroaren aurkako firmak jasotzen hasi dira

Pedro Muguruza, Ermuaranbide eta Bernardo Ezenarro kaleetako bizilagun eta merkatariak, tirmak jasotzen hasi dira larunbat arratsaldetako giroa dela-eta, protesta egiteko. Duela pare bat hilabete hasi ziren sinadurak biltzen, eta arduradunek azaldu digutenez, 150 firma baino gehiago dituzte dagoeneko.


Beraien helburua, ahalik eta firma gehien lortzea da, gero Udaletxean aurkezteko. Bizilagunak nazkatuta daude hainbeste zarata, borroka, pixa usain eta era guztietako ekintza bandalikoak jasateaz: "Dena apurtzen dute, edozein tokitan egiten

dute pixa, eta ingurune guztia zikinkeriaz beteta lagatzen dute", esan digute arduradunek. Honetaz gain, aparkalekuak ere ez dituztela errespetatzen azaldu digute.

Arazoa aspalditik dator, eta bizilagun hauek irtenbide bat nahi dute: "ez dakigu zein den irtenbidea, baina Udalak zerbait egin beharra dauka. Udaltzain gehiago jarri eta arazoaren aurrean neurriak hartu behar dituzte". Esan digutenez, salaketa ugari jarri dituzte Udaletxean, baina ez dute ezer lortu. Herri osoari eragiten dion arazoa denez, sinadura bilketa honekin zerbait gehiago lortzea espero dute.



Ezkerrean, Madalako telefono kabina apurtuta. Asteburuero izaten ditu antzerako erasoak.



Eskuinean, Barren aurreko paper kontenedorea erreta ageri da.

1.862,40 euroko aurrekontua izango du Altzolako iturria lekuz mugitzeak



Fatxe berriak eraikitzeko prozesuan, Altzolako iturria metro batzuk mugitu beharra da. Iturri zaharra, "Atzerriko Misioak" eraikinari itsatsita zegoen, baina etxebizitza berrien fatxadak iturria deformatu dezake, beraz, tokiz mugitzea erabaki da. Udalak 1.862,40 euro gastatuko ditu proiektu honetan. Altzolako iturriak, bere-bereak diren ezauzari oso bereziak ditu, eta Udalak eskatuta, ahal den gutxien itxuraldatzen saiatuko dira. Honela, gurutzia, eskailera-mailak eta alboetan dituen kararizko hankadak dauden moduan mantenduko dira. Hala ere, beste zenbait elementu oso egoera txarrean daude, eta ezin izango dira berreskuratu. Helburua aurreko iturriaren antzerakoa eraikitzea da.

Iaz baino diru gutxiago jaso da Miski Elkartearen kanpaina

Miski'Elkartearen aurtenko kanpaina 6.000 euro inguru bildu dira, iaz baino 12.000 euro gutxiago. Gemma Agirre Gomezkortak esan digunez, bere nahia 30.000 euro lortzea zen, baina krisi ekonomikoa dela-eta, askoz gutxiago bildu dute. Datorren martxoaren 6an abiatuko da Gemma Peruko Cusco herrira lortutako dirua banatzera. Lau hilabete pasatuko ditu bertan, eta lortutako diruarekin ahal duen gutzia egingen saiatuko da. Iazko proiektuen artean, 52 haur eskolaratzea lortu zuen Gemmak, eta aurten ume hauen eskolatzarekin jarraitzea da bere helburua, eta ahal badu, beste haur batzuk eskolatzan saiatuko da: "lortutako diruarekin ezin dugun gauza gehiago egin". Aurten gauzak



ez dira Gemmak espero bezala atera, baina datorren urtean ere, beste kanpaina bat egingeko asmoa daukala adierazi digu.

Bestalde, joan zen asteartean Miski Elkartearen zozketa egin zen. Irabazleak Gemma Monrealen marzolan bat jasoko du.

Zenbaki saritua: 1206.

Erreserbako zenbakiak: 140 eta 13.

Xiberoa Garatzen kanpaina 12.500 euro lortu dira Elgoibarren

Hasiara batean Elgoibarrek 40 ekarpen lortzeko helburua zeukan, eta azkenean helburu hori gainditu egin du. 250 euroko 50 ekarpen lortu ditu, beraz, 12.500 euro bildu dituzte gutzira. Debarrenan 107 ekarpen lortu dira gutzira, eta Euskal Herrian, 401.745 euro bildu dira Zuberotarrek Bat Auzolanean kanpaina. Udalbiltzak zorionak eta eskerrak eman nahi dizkie ekitasmo honetan parte hartu duten elgoibartar gutzietei.

Sahararako janari bilteta kanpaina martxan da

"Zure aztarna Saharan" lemapean, Saharako errefuxiatuei laguntzeko janari bilteta kanpaina hasi dute Elgoibarren. Udala izango da ekimen honen babeslea, eta horretarako herriko beste elkarte batzuen laguntza izango du, besteak beste, ikastetxeek, Caritasek, Nautiluslanek eta herriko dendariak lagunduko diote. Jakiak Eroski edo Netto dendetan, eta Gurutze Gorriak Aita Agirre enparantzan duen egoitzaren ondoan laga daitezke urtarilaren 22tik 31ra bitartean. Hala ere, kalitate kontrola dela-eta, ezin da edozein motatako janaria eman. Azukrea, zerealak, legunbreak, pasta, olioia eta atuna bakarrik onartuko dira.

Anchstegui



Sanyfer

**ZERAMIKAK
ETA ETXERAKO
TRESNERIA**

Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

[BOUTIQUE DEL PAN %

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 943 74 33

Alderdi politikoak hasi dira maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetako zerrendak prestatzen ZURE USTEZ ZEIN EZAUGARRI BETE BEHAR DITU ALKATEGAI BATEK?



AMAIA URANGA

27 urte, psikologoa

Idea berriak dauzkan pertsona izan behar du, gazteei asko begiratzen diena, eta batez ere, egia esaten duena. Gazteen gaiak kontu handiz tratatzen dakien pertsona izan behar du.

EIDER ITUARTE

29 urte, pilotua

Herritarra izatea, eta herritarren mesederako **lan egitea**. Herritarren dirua herriaren mesederako gastatzea, eta ez norberaren intereserako edo bere alderdi politikoarentzako. Herria maite duen pertsona izatea.



JUAN PEDRO HIDALGO


35 urte, merkataria

Zintzoa izatea ezinbestekoa da, eta ez da erraza alkate zintzo bat bilatzea. **Herriarekin eta herritarrekin zintzotasunez** jokatzeko badu, dena ondo aterako zaio. Alkate izateko, balio egin behar da.

MARCOS HERVIAS

31 urte, ajustatzailea

Garrantzitsuena gezurtia *ez* izatea da. Politiko guztiak dira gezurtiak, eta beraien interesak bakarrik defenditzen dituzte. Alkateak zintzoa izan, eta herriaren alde jokatu behar du.



JULIAN VILLENA

27 urte, langabetua

Lapurra ez izatia. Politikuak dirutik hurbilegi bizi dia, eta hori tentazio haundia da. Politiku bano gehixo, onestua eta pertsona ona izan bihar da alkatia. Herritarrekin garbi jokatzia inportantia da.

AINHOA DIEZ

25 urte, kutzazaina

Ondradua eta egia esaten duen pertsona izatea, eta promesak egiteaz gain, betetzen dakiena. Herriari laguntzeko ideiak eduki, eta herriarekin zintzo jokatzeko da garrantzitsuena.



Neguko menu bereziak
1 2 euro

O_rahn kgo^{nde}
1a tikt


gouetan ere

Basarte 51.azoa, 4
Tilf. - Fax: 943 743 426
20870 Elvibar



VisfiPlt
JATETXEA

Malape



a erna

1e (i) GD @ ej

egunero 7:00etan
i rekitzen dugu

San Frantzisko, 60
t el 943 74 19 43

41a4c, A4,
£ 4.4:£45.0 /4194.3

nolo ALDATU diren gauzak!



1982. urte inguruko erretratu hau, **Elgoibarko Udal** liburutegian laga digute. Hemen ikusten diren eraikuntza hauek aspaldi **botatakoak dira**. Ezkerraldeko eraikina Valentin Aranzamendi "Katei"ren gaseosa fabrika da. Eskuin aldean ikusten duguna, berriz, Rafael Etxaniz eta beste batzuen txabola. Feria aurreko egunean, txabola hauetan gordetzen zuten ganadua. Garai hartan, baratza eta ortuak ziren nagusi ingurune honetan. Argazkiaren atzeko aldean, **forja izandako** eraikuntza eta etxebizitza batzuk ageri zaizkigu. Herrian toki ezaguna zen hau, eta eskolatik irten ostean, ume ugari ibiltzen zen bertan jolasean.

2003. urteko argazki honetan, ingurune hau zeharo aldatuta ageri zaigu. Leku Eder izena dauka gaur egun parke honek, eta oso dotore dago. Eraikin zaharrak zeuden lekuan, Inazio Bereziartua Musika Eskola berria dago gaur egun. Haur eta gazte egunero joaten dira bertara musika ikastera. Leku Eder parkea oso polita eta dotorea egin dute, kolunpio eta eserlekuekin. **Ume eta** gurasoek eguneko ordu asko pasatzen dituzte bertan. **Herriko parke** honetan sekulako giro ederra egoten da eguraldi ona egiten duenean, eta udan jendez gainezka egoten da. Herritarrek oso gustukoa dute paraje hau.

Juanito Gorostiza



Elgoibarko Institutuko bost ikaslek Eskozian egin dituzte lan-praktikak

AGENDA

Urtarrilak 25, 3. Jardunaldia

rrri Eskolan

- Alebin mutilak
- 9:00 Ikastola C- Herri Eskola B
- 9:45 Ikastola A- Herri Eskola A
- 10:30 Ikastola B- Mendaro B
- 12:45 Pilar A- Pilar B
- MAlebin neskek ■
- 11:15 Pilar A- Pilar B
- 12:00 Ikastola B- Herri Eskola
- Ikastola A (Atsedena)

FUTBOL 7, Mintxetan

- Infantil mutilak ■
- 11:00 Pilar B- Ikastola A
- 12:00 Insti A- Insti B
- Ikastola B (Atsedena)
- !!! Infantil neskek ■
- 11:00 Pilar A- Ikastola A
- 12:00 Insti A- Insti B
- Ikastola B (Atsedena)

ESKUBALOA, Ikastolan

- Benjaminak !!!
- 10:00 Mendaro A- Pilar D
- 10:30 Ikastola C- Herri Eskola B
- 11:00 Ikastola E- Ikastola A
- 11:30 Pilar A- Pilar C
- 12:00 Ikastola B- Herri Eskola A
- 12:30 Ikastola D- Herri Eskola C



Ana Belen Agea, Monika Fernandez, Onintza Caramanzana, Naroa Gonzalez eta Estibaliz Nieto hiru hilabetez izan ziren Eskozian lan praktikak egiten. Leonardo Programaren barruan, Ingurugiro Osasuneko bost ikasleak, irailaren 12an abiatu ziren Eskoziara, eta abenduaren 15ean itzuli ziren. Esan digutenez, esperientzia polita izan da, eta klasean ikasitako guztia praktikan jarri dute. Kalitateari loturiko gaiak landu dituzte, hau da, ISO 9.001 eta ISO 14.001 legeetan oinarritutako

gaiak. Lehenengo hiru asteak ingelesa ikasten pasatu zituzten: "Zailena hizkuntza ulertzea izan da, oso ingeles itxia daukate-eta. Hala ere, jendea oso irekia da, eta ondo hartu gaiztuzte", esan digu Monikak. Astearen hiru egun joaten ziren enpresetara lanera, eta beste bi eskolan pasatzen zituzten. Depuradora bat eta janari almatzen bat ikustera ere, joan ziren. Asteburuak turismo apur bat egiteko aprobetxatu dituztela kontatu digute. Orokorrean uste baino esperientzia hobea izan dela aipatu digute.

Herri Eskolako ikasle eta gurasoak Galdaramiño mendian izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, ikasle eta gurasoak Galdaramiño (689 m.) mendian izan ziren. 50 lagun inguru, trenez abiatu ziren Eibarrera. Untzaga Plazatik, Unbe kirolgunera, eta handik gora Galdaramiño gailurreraino iritsi ziren. Eguraldi ona egin omen zuen, eta oso ondo pasatu zutela azaldu digute. Datorren igandean, urtarrilak 26, Garagoitxi (726 m.) mendira joango dira. Irteera 9:30etan Plaza Handian.



Ondarruko Ikastolako haurrak BARRENen



Ondarruko Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek BARREN bisitatu zuten. Elgoibarrera egin zuten txangoa, eta herriko hainbat toki bisitatu ostean, gure erredakziora etorri ziren. Gure aldirikariaren funtzionamendua ezagutzeko asmoz etorri zitzaizkigun, eta gure zuzendariak eman zizkien azalpen guztiak. Beraien dudak argitu eta astero-astero BARREN nola egiten den kontatu genien. Gure lana asko gustatu zitzaien, eta batzuk kazetari izateko asmoa zeukatela esan ziguten.


2003ko urtarrila/XI. urtea/431. zkia
A S T E K A R I A
E L K A R R I Z K E T A
H O N I
T I T U L A R R A
J A R T Z E K O
M O D U R I K
E G O K I E N A
H O R I
B A I T A
E N R I K E
L A R R A Ñ A G A
E L G O I B A R T A R R A
R E N
E Z A U G A R R I
N A G U S I A
Z O R I O N T A S U N A
T R A N S M I T I T Z E N
D U
E T A
Z O R I O N T A S U N A R I
B U R U Z
H I T Z
E G I T E K O
E S K A T U
D I O G U
I Z A N
E R E
N O R K
E Z
D U
Z O R I O N
T S U
I Z A N
N A H I
? G A U R
E G U N
" Z O R I O N T A S U N A R E N
P E D A G O G I A " I Z E N E K O
H I T Z A L D I A
E M A T E N
D U
H A N
E T A
H E M E N
B E R E
H I T Z E T A N
Z O R I O N T A S U
N A R E N
B I D E A N
J A R T Z E K O
B I D E
E D O
P R O Z E S U
B A T
D A
Z O R I O N T A S U N A R E N
P E D A G O G I A

BARRREN

ASTEKARIA

elkarrizketa

"POZIK BIZI DEN GIZONA" IZANGO LITZATEKE ELKARRIZKETA HONI TITULARRA JARTZEKO MODURIK EGOKIENA, HORI BAITA ENRIKE LARRAÑAGA ELGOIBARTARRAREN EZAUGARRI NAGUSIA. ZORIONTASUNA TRANSMITITZEN DU ETA ZORIONTASUNARI BURUZ HITZ EGITEKO ESKATU DIOGU. IZAN ERE, NORK EZ DU ZORIONTSU IZAN NAHI? GAUR EGUN " ZORIONTASUNAREN PEDAGOGIA" IZENeko HITZALDIA EMATEN DU HAN ETA HEMEN. BERE HITZETAN, ZORIONTASUNAREN BIDEAN JARTZEKO BIDE EDO PROZESU BAT DA ZORIONTASUNAREN PEDAGOGIA.



Enrike Larrañaga

" FILOSOFIA GAIDEREI ERANTZUNAK EMATEN LAGUNTZEN DIGUH"


ENRIKE LARRAÑAGA BIGARREN ERREPUBLIKA SORTU BAINO 4 EGUN LEHENAGO JAIO ZEN EIBARREN, 1931KO APIRILAREN 10EAN. FILOSOFIA, TEOLOGIA, PSIKOPEDAGOGIA ETA SOZIOLOGIA IKASKETAK EGINAK DITU ETA HAINBAT URTEZ IKASLE, APAIZ ETA IRAKASLE LANAK UZTARTU ZITUEIV. 22 URTEZ SORALUZEN ETA DEBAN APAIZ LANETAN ARITU OSTEAN, APAIZ IZATEARI LAGA ETA EZKONTZEA ERABAKI ZUEN. 1976 URTEAN ELGOIBARRERA ETORRI ZEN. ELGOIBARKO INSTITUTUA MARTXANJARRI ETA LEHEN ZUZENDARLA IZAN ZEN. GAUR EGUN JUBILATUTA DAGO, BAINA EZ DAUKA ASPERTZEKO ASTIRIK, PERTSONAK ZORIONTASUNAREN BIDEAN JARTZEN AHALEGINTZEN DA HAN ETA HEMEN HTIZALDIAK ETA TOPAICETAK ANTOLATUZ

Enrike Larrañaga

Mre barruan sartu

Zer ikasketa egin zenituen gaztetan?

Gaur egun Gasteizko Teologiako fakultatea den ikastetxean egin nuen batxilergoa lehenik, eta Filosofia eta Teologia, ondoren. Valladoliden magisteritza ikasi nuen. Ondoren, Filosofia ikasketak sakontzera joan nintzen Erromara. Filosofiako Lizentziatura, berriz, Madrilgo Unibertsitate Komplutensean atera nuen. Psikologia eta Soziologia ikasketak egiteko ere aprobetxatu nuen, geroago Bartzelonan institutuko irakasle izan ahal izateko. Ondoren, Donostiako Periafloridako Filosofiako agregaduria atera nuen. Handik Eibarko Institutura joan nintzen zuzendariorde moduan lan egitera. Han nengoela Elgoibarren Instituto berri bat zabaltzekotan zedula eta bertako zuzendari izatera etortzeko proposamena egin zidaten.



"NORBERE BURUARE POZIK EGOTEA DA ZOR ZORIONTSUA EZ BADI ZORIONTSU IR

Elgoibarko Institutuko lehen zuzendaria izan zinen beraz?


Bai, Institutua martxan jarri zuena eta lehen zuzendaria izan nintzen, baina baldintza batzuk exigituz etorri nintzen; irakasleak aukeratzeko askatasuna izatea, alegia. Euskal giroko pertsonak aukeratu nituen, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu... gaur egun Euskal Herrian euskararen alde lan gehien egin duen institutuetakoa bat da.

Noiz inauguratu zen Institutua?

1976. urteko urrian ireki genuen eta Tejero koronela, geroago estatu kolpea eman zuena, etorri zen inauguraziora. Gipuzkoako gobernadore militarra zen garai hartan eta arazoak izan genituen espainiar bandera jartzea nahi zuelako. Ikuurriria jarriko genuela erantzun genion eta izugarrizko iskanbila sortu zen. Azkenean, ez bata ez bestea ez genituen jarri.

Zein oroitzapen dituzu irakasle urteetaz?

Onak. Beti gustatu izan zait gazteekin hartu-emanetan ibiltzea, norbera ere gazteago sentitzen baita. Ikasleen aurrean ikasle bat gehiago moduan aurkeztu nahi izan dut beti, denok baikara ikasle eta irakasle aldi berean.



ta pozik bizitzeko gogoa topatu dut"



retero Jesus pertsona historikoarengan jarri dut nire konfidantza guztia.

Nazareteko Jesus pertsonaia historikoarengan?

Bai. Batzuk pertsonaia mitikoa dela diote, imaginaziotik sortua, alegia, baina zientifikoki frogatuta dago Jesus bizi izan zela eta bere pentsamendurik garrantzitsuenak ebanjeliotan bilduta daude. Nora goaz? Nondik dator eza-gutzen dugun errealitatea? Eta zer egin behar dugu mundu honetan bizi garen bitartean? Nazareteko Jesusek galdera hauei ematen dien erantzunengan dut konfidantzarik gehien; beste batzuk Buda, Mahoma, Marxismoa edo Sartreren existentzialismoa aukeratu duten moduan.

I Psikologia eta filosofiaz baliatuz lortu al daiteke zoriontasuna?

Filosofiak galderei erantzunak ematen laguntzen digu. Lehenago edo geroago, heldutasuna lortzen dugunean, gizaki guztiok egiten dizkiogu galdera berdinak gure buruari: zer egiten dut mundu honetan, zertarako nago hemen? Zer zentzu dauka nire bizitzak? Galdera unibertsalak direnez, beste batzuk pentsatu eta esan dituztenak jakitea lagungarria da; filosofoen pentsamendua esaterako. Psikologiak, berriz, norbere buruaren barruan sartzen laguntzen du eta gure baitan ditugun kezka eta galderak zein diren argitzen.

Nola lagun dezake filosofiak eguneroko bizimoduan?

Gaur egun denok daukagu burua janda telebista, egunkari, publizitate, etabarraren eraginez. Filosofiak gure inguruan gertatzen diren gorabehera guztiekiko irizpide kritikoa izaten lagun diezaguke. Gainera datorkigun guztiari aurre egiteko tresna edo irizpide batzuk edukitzea beharrezkoa da, kritikatzeko gaitasuna izatea, alegia. Kritikatzeko



nortasuna izan behar da, ordea, eta nortasun propioa izateko, berriz, iriztiak. Hauxe da filosofiak eskaini dezakeena.

Donostian adibidez, Filosofia ikasketak egin dituen emakume batek lehen Kontsultorio Filosofikoa ireki berri du oraintsu.

Oso ondo iruditzen zait. Modu askotako kontsultorioak daude, psikologikoa, medikoa, legezkoak... beraz, zergatik ez filosofikoa.

Zer da zoriontasuna zuretzat?
Norbere buruarekin eta bakoitzaren izatearekin eta ekintzekin pozik egotea

ETA IZATEAREKIN TASUNA. NORBERA IOLA EGINGO DITU UKOAK?"

Apaiza ere izan zara, ezta?

Bai, apaiz lanak, ikasketak eta irakasle izatea batera egin nituen urte askotan. Sorraluzen 11 urte egin nituen apaiz moduan

eta beste horrenbeste Deban.

Jakiterik baldin badago, zergatik laga zenion apaiz izateari?

Arazo pertsonalak tarteko, irtenbiderik egokiena zela iruditu zitzaidan eta 1978. urtean apaiz izateari laga nion. Apaiz ogibidea laga nuen, baina nortasunez eta sentimenduz apaiz izaten jarraitzen dut. Gero ezkontzea erabaki nuen.

Fedea galdu al zenuen?

Fede bat dut eta kristau bezala bizi dut. Filosofia gizakiak dauzkan arazo edo galdera nagusienei erantzuna ematen saiatzen da, hau da, zergatik existitzen da errealitatea eta ez ezereza? Nondik sortu dira lurra, eguzki sistema eta kosmosa? Berez sortu al dira? Sortu al liteke zerbait ezerezetik? Galdera hauek guztiak argitzeko erantzun mitologikoa, filosofikoa, zientifikoa eta teologikoa erabili ditu gizakiak arrazoitzeko gaitasuna duenetik. Hau dena kultura da. Aukera eta erantzun guztiak aztertu ostean, aukera bat egin dut: Naza-



eta bizitzea da zoriontasuna. Norbera zorionsua ez baldin bada, nola egingo ditu zorionsu ingurukoak?

Lortu al duzu zorionsu izatea?

Bizitza honetan lortu daitekeen neurrian lortu dut. Zoriontasun osoa ezinezkoa da. Izan ere, betirako bizitzea, munduan bakea, askatasuna, justizia eta maitasuna egotea nahiko nuke. Dena dela, zoriontasun oso hori lortuko dudan itzaropena dut eta horrek ematen dit sakon sakoneko zoriontasuna. Nire barruan sartu eta pozik bizitzeko gogoia topatu dut. Denok daukagu pozik eta zorionsu bizitzeko gogoia, orain, lehen eta beti. Barruan dauka-

gun gogo edo egarri hori asetzeko ez badago zer-bait, bizitza absurdo bat da.

I Nola lortu daiteke zoriontasuna?


Zeu izanez, hau da, norbere buruaren baitan sartu eta barruan ditugun gauzarik ederrenak bilatu eta topatuz. Ez da erraza, hor dago koska!

Zein dira zure ustez gure gizartean nagusitzen diren baloreak?

Dirua, boterea, atsegina, irudia, arrakasta, segurtasuna eta indarkeria. 25.000 pertsona hiltzen dira egunero munduan gosez eta gu berriz, gizarte egoista, kontsumista, lehiakor eta faltasuan bizi gara, eta jende asko beldurrez bizi da, gainera. Etorkizunaren beldur, langabeziaren beldur eta gerrateen beldur.

Askok zoriontasuna arrakasta edo ondasun materialak lortzearekin nahasten dute. Zergatik?

Zoriontasuna hor dagoela pentsatzen dutelako. Mendebaldeko kulturaren zoriontasuna edukitzean oinarritua baitaigo, izatean beharrean.



besteen ahotan



Enrike Larrañagaren biloba da **Naiara Alguacil** (argazkian erdikoak), 18 urteko ikasle elgoibartarra. Elkarrizketan zehar konturatzeko aukera izan badugu ere Naiarak Enrikeren ezaugarriak bistakoena egiaztatu digu, beti dagoela alai eta pozik, alegia. "Nere bizitza guztixan ez dot triste edo haserre ezagutu. Nola egiten duen beti pozik agertzeko galdetzen badiozu, jangoikua dala bere zoriontasunaren iturrixa erantzuten dau eta berak ematen diola bihar dabana". Honetaz gain Enrikerekin edozer gauzatzaz hitz egin daitekeela aipatu digu, "beti dago entzuteko eta laguntzeko prest, bai nirekin eta baita gainintzekoekin ere. Gainera, pertsona bat oso kristaua edo erligiotsua dala esaten digutenian burura etortzen zaigun lehen ideia oso itxia izango dela pertsona hori izan leike, baina Enriker oso mentalitate irekixa du eta beti dago gauza berriretara zabalik".



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

24	Fernandez
25	Yudego
26	Yudego
27	Zabaleta
28	Etxeberria (Errosario kalean)
29	Ibañez
30	Bidasolo
31	Etxeberria (Santa Ana kalean)

GAUEZ

Fernandez
Yudego
Yudego
Zabaleta
Etxeberria
Ibañez
Bidasolo
Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

26 igandea Ibarrenea

Eusko

DONOSTIA-BILBO

Egunero

Donostia 5.45 06.45... 20.45

Elgoibar 07.02 08.02... 22.02

jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo 06.00 7.00... 20.00

Elgoibar 07.23 08.23... 21.23

jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

Eusko

AITTOBUSAK

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

LARUNBAT GAUA

PESIAUTOBUSAK

EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.10
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

ONDARROA-EIBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

EIBAR-MUTRIKU

Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Deba	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

MUTRIKU

Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

EIBAR-AZPEITIA

Eibar	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40
Azkoitia	01.50	03.50	05.50
Azpeitia	01.55	03.55	05.55

AZPEITIA-EIBAR

Alpeitia	00.30	02.30	04.30
Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Elgoibar	00.45	02.45	04.45
Eibar	00.55	02.55	04.55

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Egu neko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32

Institutua

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel 902 101 210.

IDA

IDA



BaRR n

2003ko GIDA

**Azkeneko gidan agertu ez bazinen
edo zure negozioko telefonoa
edo helbidea aldatu bada
deitu 943 74 37 04 telefonora**

Aurten herritarren telefonoekin!

San Anton Jaien errepassoa

Osfiralean tokatu da aurten San Anton Eguna eta elgoibartar askok kanpora ateratzeko aprobetxatu zuten jai-zubia. Eski estazioak elgoibartarrez gainezka egon zirela jakin dugu, Luz Ardiden, batez ere. Eskiatzera joan ez ziren beste hainbatek erosketak egiteko aprobetxatu

zuten. Izan ere, herritar askoren ohitura bihurtu da San Anton Eguna erosketak eginez pasatzea, merkealdiak aprobetxatuz. Herriko zaindariaren omenez egiten den jai egunak ez du estimazio berdina herritar guztiengan, baina geratzea erabaki zutenek hainbat ekitaldi izan zi-

tuzten aukeran barixakuan eta zapa-tuan: Ertzantzaren bandaren konizertua, San Anton Pilota Txapelketaren finalak, El Club de la Comedia umorezko ikuskizuna, erakusketa filatelikoa, Parroxfako abesbatzaren eta Eibarko Sostoa abesbatzaren emanaldiak, haur parkea...

Ertzantzaren banda

Azken urteotan ohitura bilakatu da San Anton Egunean Ertzantzaren Bandak Herriko Antzokian eskaintzen duen kontzertua eta aurten ere ez zuten hutsik egin. Batek baino gehiagok susto edarra hartuko zuen Herriko Antzoki kanpoan zegoen ertzain mordoa ikustean.



Erraldoiak..

Eguraldia lagun, haur eta gaztetxoek Plaza Handian jarritako jolas parkean gozatzeko aukera izan zuten gurasoekin batera. Arratsaldean, beniz, erraldoi eta buruhandiak atera ziren kalejiran Herriko Dultzaineroen doinuak lagun.

Zigilu erakusketa

Taupada Antzerki Taldea izan zen XXIII. Zigilu Erakusketaren protagonista. Taupadak 25 urte bete zituen iaz eta aurtengo zigilu erakusketa euren omenez antolatu da. Honez gain, edizio honetako zigilu nagusian, Taupada Antzerki Taldearen anagrama eta Euskal Antzerki taldearen adierazgarri diren bi maskara ageri dira. Edurne Lasak eta Jose Mari Larrañagak oroigarri bana jaso zuten inaugurazio ekitaldian. Erakusketa urtarrilaren 26ra arte izango da ikusgai.



El club de la comedia

Aurtengoa "El Club de la comedia" umorezko monologoekin osatutako ikuskizuna ekartzen duten hirugarren aldia izan dela adierazi digute Kultura Sailetik. Aurreko biak arrakastatsuak izan ziren ikusle aldetik, baina azkenengoak marka guztiak hautsi ditu eta ostegun goizerako agortuta zeuden sarrera guztiak (Herriko Antzokiak 400 pertsonentzako lekua du). Belen Rubio, Eduardo Aldan, Sergio Olalla eta Alfredo Diaz aktoreek ez zuten arazorik izan gisa honetan gure kamararen aurrean jartzeko emanaldia hasi aurretik.

Eguskiza zornotzarrak irabazi zuen Euskadiko lau terdiko Elite Txapelketa

Bestalde, Mendizabal eta Altuna gipuzkoarrek irabazi zuten San Anton Txapelketa

Ikastolako frontoiak gainezka egin zuen San Anton Egunean Euskadiko Lau t'erdiko Elite txapelketaren finala eta San Anton Txapelketako finalak ikusteko. Andoni Eguskiza zornotzarra eta Ander Antxia abadiñoarra iritsi ziren euskadiko Elite Txapelketaren finalera eta partidu orekatua eta gogorra espero zuten aditu eta zaletuek. Tamalez, hotz samar hasi zen Antxia eta huts asko egin zituen lehen tantotan. Eguskizak, bere aldetik, sendotasun fisikoa erakutsi zuen partidu osoan eta 7 eta 18raino alde egin zuen. Partida erabakita zegoela ematen zuen une horretan, baina Antxiak susperraldia izan zuen eta barrutik indarrak ateraz 7 tanto egin zituen segidan. Dena dela, jarraian egindako bi hutsen ondorioz, Eguskizak txapela eskuratzeko aukera izan zuen eta ez zuen alferrik galdu. Txema Aldamiz Etxeberria Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzako presidentea gustura azaldu zen lau t'erdiko txapelketak Elgoibarren izan duen bilakaera eta harrerarekin eta datozen urteetan txapelketa bertan antolatzea dela beraien asmoa azaldu zuen. Lau t'erdiko partidua ETBk bota zuen zapatu arratsaldean telebistaz.

San Anton Txapelketa

Bestalde, Lagunak Pilota Eskolak antolatzen duen San Anton Pilota Txapelketan Larralde eta Larrarte nagusitu ziren gazte mailako finalean, Garciandia eta Iruritari 22 eta 10 irabazi ostean.



Goiko argazkian San Anton Pilota Txapelketako finalean parte hartu zuten lau pilotariak. Txapelarekin Altuna (jokalari onena aukeratua) eta Mendizabal. Eskumako argazkian Antxia eta Eguskiza garaikurrekin.



Larralde aurrelaria aukeratu zuten finaleko jokalaria onena. Nagusien mailako finalean partidu ikusgarria aurrikusten zen, baina usteak erdi ustel. Mendizabal eta Altuna gipuzkoarrek bikote jotzailea osatzen dute eta Iriarte aurkako atzelaria errebotetik atera ezinik eduki zuten partidu osoan. Iriarteren ezintasunak partidurik gabe laga zituen ikusleak. Martinez de Irujo aurrelari

naparra saiatu zen zerbait egiten eta bereak izan ziren tanturik ikusgarrienak, baina gehiegi arriskatu beharraz nahi baino pilota gehiago galdu zituen. Dena dela etorkizun handiko pilotaria izan daitekeela erakutsi du San Anton Txapelketan. Azken emaitza 22 eta 12 izan zen gipuzkoarrentzat. Altuna aukeratu zuten finaleko pilotari onena merezimendu osoz.

BANATZAILEA BEHAR DA
BARREN baserrietan eta Altzolan banatzeko
Autoa beharrezkoa

Informazioa: 943 74 41 12

Udal Kirol patronatuak 18.570 euro banatu zituen Elgoibarko 17 kirol taldeen artean 2002an

Eskubaloia eta futbola dira dirulaguntza gehien jasotzen dutenak




Udal Kirol Patronatuak 18.571,27 euro (3.090.000 pezeta) banatu zituen 2002. Urtean Elgoibarko kirol taldeen artean. Guztira 17 taldek jaso zituzten Patronatuaren diru laguntzak. Diru laguntzak aurrez jarritako irizpide batzuren arabera ematen dira, hau da, Eskola Kirola programan taldeek duten partaidetza, bakoitzak duen patronatuko bazkide kopurua, federatu kopurua, lizentziadun entrenatzaile kopurua, etab. Helburu edo irizpide hauek hobekien bete zituen taldea eta beraz, dirulaguntza gehien jaso zuena, Sanlo Eskubaloia taldea izan zen (3.473,30 euro).

2002kc) clirtAla. •juintzen na keta.

Taldea	Euroak
1-Eskubaloia	3 473,30
2-C.D. Elgoibar	2.321,41
3-Ibai-Kluba	1.539,77
4-Ur Bizi buzeoa	1.536,93
5-Mi ntxeta A. T.	1.428,11
6-Areto futbola	1.404,60
7-Lagu nak pilota	940,32
8-Lagun Taldea	793,39
9-Pedrusko	652,35
10-Igeriketa	601,01
11-Morkaiko	600
12-Olaizaga K.T.	570,07
13-Saskibaloia	546,56
14-Txusko Moto Klub	487,79
15-Zubi-Ondo Xakea	458,40
16-U rgazi Triatloia	364,37
17-Zarta arkulariak	205,69

Urteko kirolari promesa onena aukeratu dute Evelyn Santos futbolari elgoibartarra

Donostiako Kursaalean ospatu zen Gipuzkoako Kirolaren jaialdia Gabonak aurretik. Bertan urteko kirolari gipuzkoar onenak saritu zituzten eta tartean izan zen elgoibartarrik ere. IMH-Eibartarrak futbol taldean jokatzen duen Evelyn Santos elgoibartarra kirolari promesa onena aukeratu zuten bigarren urtez jarraian. Sari honekin etorkizunera begira aukera handiak izan ditzaketen kirolariak saritu eta omentzen dira. Batez ere, 19 urtez azpiko espainiar selekzioarekin eta IMH taldearekin egindako lanagatik jaso zuen saria. Orain gutxi Euskadiko selekzioarekin izan da Evelyn Espainiako Txapelketaren lehen fasea jokatzen eta emaitza ezin hobekien lortu dituzte, jokoan zeuden puntu guztiak lortuz. Iaz Euskadik lortu zuen Espainiako Txapelketa. Evelynek Eli Ibarra eta Itziar Gurrutxaga Athletic-eko jokalariek elgoibartarren laguntza izan zuen.



EMAITZAK

Futbola

Haundi 0 - Trintxerpe 2 (Pref.)
Eibartarrak 0 - Elgoibar 1 (1. erreg.)
Elgoibar 5 - Lazkao 1 (Jub.)
Elgoibar 3 - Bergara 3 (Kad.)

Esku pilota

San Anton Txapelketa
Larralde/Larrarte 22
Garcandia/Zubieta 10 (Gazteak)
Mtez. De Irujo/Iriarte 12
Mendizabal/Altuna 22 (Nagusiak)
Elite Euskadi Txapelketa
Eguskiza 22 - Antxia II 15

Areto futbola

Kenci Elg. 2 - Gala Gar 5 (Nazional A)
Allerru 4 - Lanbroa Elg. 5 (1. maila)
Lojantzi Elg. 3- Etxadi 1 (Jub.)

Eskubaloia

Tecnifuelle Elg. 25 - Axis UPV 29 (Sen. mut.)
Sanlo Elgoibar 23 - San Adrian 22 (Sen. nesk.)
El Pilar 38 - Tecnomeca Elg. 26 (Kad. mut.)
El Pilar 21 - Pneumax Elg. 28 (Jub. mut.)
Tolosa 14 - Gaur Elg. 24 (Jub. mut.)
Pagoaga Elg. 13 - Aloña-Mendi 23 (Kad. nesk.)
Cometel Elg. 12 - Aloña-Mendi 18 (Jub. nesk.)
Bera-Bera 20 - Sanlo Elg. 17 (Sen. nesk.)

Xakea

Elgoibar 2 - Idiazabal 2

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 25
16:30 Elgoibar - Segura (1. erreg.)
Domekia, 26
12:00 Elgoibar - Hernani (Inf.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 25
17:15 Pagoaga Elg. - Askartza (Kad. nesk.)
18:45 Cometel Elg. Askartza (Jub. nesk.)
Domekia, 26
12:30 Sanlo Elg. - Bergara (Sen. nesk.)

Saskibaloia, Kiroldegian

Zapatua, 25
16:00 Lojantzi Elg. - Jostaldi

Areto futbola, Kiroldegian

Barixakua, 24
22:15 Lanbroa Elg. - Zaldibi (1. maila)

Xakea, Pista Beltzean

Zapatua, 25
16:00 Elgoibar - Tolosa

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak **metale-rako 3 langile** behar ditu. **Erref. 92949/4**

Mendaroko enpresak **mantenimenterako langilea** behar du. **Erref. 94855/2**

Elorrioko enpresak **bezeroari atentziarako langilea** behar du. **Erref. 95019/1**

Bergarako enpresak **4 enkofratzailer** behar ditu. **Erref. 94251/2**

Donostialdeko enpresak **ingeniarria** behar du. **Erref. 94721/3**

Eibarko enpresak **promotorea** behar du. **Erref. 94649/3**

Donostialdeko enpresak **enkofratzailea** behar du. **Erref. 94173/1**

Durangaldeko enpresak **komertziala** behar du. **Erref. 93569/2**

Durangaldeko enpresak **aparejadorea** behar du. **Erref. 94054/3**

Durangaldeko enpresak **arotza** behar du. **Erref. 92735/2**

Hautagai moduan sartzea eskatu nabi baduzu 901222901 telefonora deitu edo "Langai"-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauekako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora RamOn) 943 74 41 32 telefonora.

Lana

ESKAERA

• Emakumea etxeko lanak egin edo gaixoak zaintzeko prest. **tr 943 03 03 21**

• Neska arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **24 629 98 81 74 Ainhoa**

• Emakumea etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **943 74 44 72/639 42 34 93**

♦ Kamarero lanak egingo nituzke. Euskara badakit eta esperientzia daukat. **Tr 943 74 17 87/699 18 32 99**

*Mutila etxeko konponketak egingo prest (arotzeria, elektrizitatea, montajea...) **tr 666 24 16 62/943 03 36 41 (Jokin)**

*Mutilak buzoneo lanak egingo lituzke. **tr 943 74 44 63 (eguerdian eta 21:00etatik aurrera)**

*Mutilak garbiketa lanak egingo lituzke. **tr 943 74 44 63 (eguerdian eta 21:00etatik aurrera)**

ESKAINAZA

*Ikastolak denboraldi mugatu batean gorputz hezkuntza irakasteko (SHEE-IVEF) lizentziatua behar du, EGA edo baliokidea-rekin. **Curriculum-ak 53 Posta Kutxatila, 20870 Elgoibar**

• Gazte jendea behar da harre-ra zerbitzuetan lan egiteko. Euskaraz jakitea eskatzen da. **Curriculum-ak 32 Posta Kubcatilara bidali**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Etxebizitzak

• Buardila edo logela bat alokatuko nuke. **tr 687 04 47 92**

• Buardila bat erosiko nuke egoera onean. Podanezkoa. **a 616 21 00 11**

♦ Etxea salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Igogailua, ganbara. Kanpoaldera begira. **15 678 80 35 35/639 180 184**

• Bigarren eskuko etxea erosiko nuke Elgoibar, Mendaro edo Altzolan. **z. 636 42 71 77**

• Pisua salgai Santa Claran. 2 logela, egongela, igogailua, eguzkitsua. **rt 659 14 12 32**

• Txiletar neska ingeniariak gela bat hartuko luke alokairuan. **ks. 943 74 44 00 (Carola)**

Salerosketak

CD, LP eta zintak salgai. Egoera onean eta prezio hobean. Euskal musika (Negu Gorriak...), metala (Slayer, Iron Maiden...), ska, hard rock... **Er 652 77 88 36**

• Seat Ibiza Sport 1.6, 105cv salgai. Urtebete dauka, 4 urteko garantia. **620 28 21 23 Leire**

• Taberna ixten dela eta, mahaiak, aukiak, hozkailua eta izotza egiteko makina salgai. Bar Pepe, Pedro Muguruza 26 behea. -cr **943 74 01 37**

• 6 ate salgai. Sukalde eta salarako kristalezko 2 ate, logela eta komunera-rako 4. Markoekin. **«a. 696 24 04 06 (20:00-22:00)**

• Urkotronik markako goxoki makina salgai. Urte eta erdi. Temperatura bikoitza. Merkea. -zr **655 71 29 59**

• Bikientzako kotxe-kapota salgai. **943 74 44 08**

+ Lada Niva autoa salgai. **17 647 55 85 17**

+ Opel Corsa luzea salgai. SS-X. Merke. s **680 11 29 38**

Garajeak

• Madalako etxe berrietan 23m2ko garajea alokairuan. Itxia. **«r 605 77 34 53 (21:00-22:00)**

• Garajea alokatzen da Pista Beltzean. **tr 943 74 29 38**

Bestelakoak

• Joan zen igande gauean emamumezkoen poltsa marroia galdu nuen San Frantzisko kalean. Aurkitzen duena sarritua izango da. -rr **943 74 16 88**

*Audifono bat galdu da. Aurkitzen duenak deitu mesedez. **943 74 11 06**

• Harri urdinak dituen pultsera galdu dut.m. **943 74 42 66**

• Betaurrekoak galdu ditut. Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez. **as 943 74 28 95/943 74 30 22**

• Abenduaren 23an kartera galdu nuen, eta hurrengo ostiralean norbaitek Udaltzaingora eraman zuen. Kartera entregatu zuena nor zen jakitzea gustatuko litzaidake, eskerrak emateko. **rs 943 74 25 30**

• Urrezko kate bat galdu dut. Libra esterlina bat dauka zintzilik. **tr 943 74 15 14 (Isabel Aizpitarte)**

• Sofa eta salarako mahaia hartuko genituzke. Gu joango gara bila. **15 629 88 94 77**

Lokalak

• Gazte koadrila batek lokala hartuko luke eskiatzeko tresnak eta bizikleta k gordetzeko. **z. 652 73 53 19 (gauetz deitu)**

Partikularrak

• Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia daukat. **tr 943 74 31 67 Nekane**

• Biokimikako klase partikularrak ematen dira. Joseba. -ce **943 74 11 82 (22:00etan)**

• Matematika klaseak gazteleeraz emango dizkidan norbait behar dut. ESOk 3. maila. s **649 18 88 25**

Agurrak

• Zorionak Ikerri urtarrilaren 15ean urteak bete zituelako. Familiakoen eta bereziki Ainhoa eta Ivanen partez.

• Zorionak **Enara Arquillori** gaur, 14 urte bete dituzulako. DBH2koen partez.



• Zorionak **Leire**, igandean urteak bete zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Ibon**, hilaren 22an, 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak **Ainhoa Urbizuri**, hilaren 20an 7 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Leire Villanuevari**, urtarrilaren 4an 5 urte bete zituelako. Izekoren partez.



• Zorionak **Marta San Martin**, urtarrilaren 12an urteak bete zenituelako. Etxekoan partez.



• Zorionak **Ane**, urtarrilaren 28an 3 urte beteko dituzulako. Guraso eta senideen partez.



• Zorionak **Ibaire**, hilaren 14an 5 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Urko**, urtarrilaren 27an 2 urte beteko dituzulako. Guraso eta senideen partez.



• Zorionak **Leire eta Ane Ipiñari**, urtarrilaren 7an eta 22an urteak bete zituztelako. Gurasoen partez.



• Zorionak **Gabriel**, joan zen hilaren 19an, 20 urte bete zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Alaitz Urtubiari**, urtarrilaren 2an 2 urte bete zituelako. Berarekin asko gogoratzen den San Martin sendiaren partez.



• Zorionak **Gorka eta Aitor**, hilaren 16 eta 17an urteak bete zenituztelako. Anderren eta amatxoren partez.



• Zorionak **Jose Miguel Martin Prietori**, bihar, hilak 25, 5 urte beteko dituelako. Guraso Victor eta Maite, Nela txakurtxo, Abdel eta Merino-Yeste familiakoen partez. Zorionak!



• Badoa gure "American Pie" Londresera bere "ingelese estre-natzera". Espero dugu ondo pasatzea eta gutaz ez ahaztea. Larunbat honetan egingo dugu despedida. Maite zaitugu.



• Zorionak gure etxeko **sorgin nagusiari**, domekan 8 urte bete zituelako, eta zorionak **gure sorgin txikiari, martitzenian 3 urte** bete zituelako.

BEKAK

Emakumezkoentzako bidaia poltsak

Fulbrighten eskutik, Iparramerikako Ruth Lee Kennedy izena daramaten hiru bekaren eskaintza. Bekak Estatu Batuetako goi-mailako irakaskuntza zentroetan beren ezagutzak areagotu nahi edo ikerketa lanak egin nahi dituzten unibertsitateko emakumeentzat dira. Epea: martxoak 10.

Praktikak albisteen artxibo batean

Berri edo albisteen ikerketan karrera egin nahi duten Bibliotekonomia eta Dokumentazio ikasleentzako praktikak EEBBtako Palm Beach Post-en egiteko beka. Epea: otsailak 28.

Jesus Elosegri Ikerketa beka

Tolosako komunitatearen joan-etorri historikoen inguruko lana egin beharko da. Epea: martxoak 15.

IKASTAROAK

Eski hobekuntzarako ikastaroa

Mendiak eta Herriak elkarteak eskiaren praktikan segurtasuna hartzeko ikastaroa antolatuta du otsaileko asteburuetarako. Mendiko eskiatzaileentzat. Tokia: Heeho-Liza eta Valle de Tena. Epea: urtarrilak 31.

LEHIAKETAK

Literatura

Bortziritetako Euskara Mankomunitateak "Herriak eta Hizkuntzak" izeneko literatura lehiaketa antolatuta du. Bertso paperak, olerkiak, ipuinak edo saiakerak aurkeztu daitezke, betiere, euskaraz, eta herria eta hizkuntza gaitzat hartuta. 16 urtetik gorakoentzat. Epea: martxoak 29.

Literatura

Benferriko Udalaren literatura lehiaketa. Gaia librekoa da. Pocsia, prusa, ipuina edo gutunak bidali daitezke. Epea: apirilak 30.

JAROUNALDIAK

Hamlet-en kontzertua

Hamlet eta Coilvox taldeen kontzertua Donostiako Gaztezenan otsailaren leian (larunbata) 21:30etan.

Argazki erakusketa

Zarauzko Photomuseumean Carl-Heimz Chargesheimer argazkilariaren erakusketa ikusgai otsailaren 9ra arte.

Luz Casal-en kontzertua

Luz Casalek "Con otra mirada" izeneko disko berria aurkeztuko du Printzipal antzokian urtarrilaren 31n 20:30etan.

BOSCC DEUNAREN EGIJNA

Elgoibarko Institutuan

URTARRILAK 31, barixakua

9:00 Krosa (Mintxetan)

9:30 Mendi bizikleta (Mintxetan)

10:00 Goitibeherak (San Rokeko
aldapan)

10:00 Tortila Txapelketa

11:00 Soka tira

12:00 Futbito finala (mutilak)

12:40 Futbito finala (neskak)

13:15 Antzerkia (Arreitureko
gimnasioan)

14:30 Bazkaria

17:00 Azkena Dantzalekua zabalik

24 BARIXAKUA

19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA
Ikastolako Frontoian



22:00 ZINE EMANALDIA
EMAKUMEENTZAT
"El diario de Bridget Jones"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

25 ZAPATUA

19:00 BALTASAR ELKARTEKO
HILDAKO BAZKIDEEN ALDEKO
MEZA
San Bartolome parrokian

26 DOMEKIA

08:00 URBASARA MENDI IRTEERA
Autobusak: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale
Elkartea

31 BARIXAKUA

19:00 EI, GOIBARKO EUSKAL
ESKOLA PUBLIKOAREN
ERAKUSKETA
Haur Eskola, Herri Eskola eta Institutua
Kultur Etxeko sotoan

ZINE
kluba



GAU LABURRA

"Topeka"

"Basurdea"

"Tercero B"

"Terminal"

Ordua: 22:15

Lekua: Herriko Antzokia
Salneurria: 3 euro

JAIK

Santa Ageda baserriz baserri

Baserriz baserri egiten den Santa Ageda bezperako diru-eskeak 10. urteurrena beteko du aurten. Urtero legez otsailaren 4an, martitzenean, eguerdiko 14:30etan aterako dira koplari eta trikitilariak Elgoibar inguruko baserriak kantuz alaitzera Ahalik eta baserri gehienetara iristeko asmoz, bi taldetan banatuta jardungo dute koplari kantari eta bukaeran denak elkartu eta San Migelgo soziedadean afalduko dute. Koplariak honako hauek izango dira: German Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza. Trikitilariak, berriz, Balzola anaiak eta Ekaitz eta Arantxa izango dira. Koruetan parte hartu nahi dutenek gaur, urtarrilak 24, izango dute izena emateko azken eguna Elgoibarko Izarrara deituta (943 74 16 26 Imanol)

ZINEA

"Gau laburra"

Ongarri Zine Klubak "Gau Laburra" izenburupean "Topeka", "Basurdea", "Tercero B" eta "Terminal" laburmetraiak eskeiniko ditu datorren ostegunean, urtarrilaren 30ean. Zine gau hau Elgoibar Xiberuarekin auzolanean egitasmoaren barruan kokatzen da. Bi mundu eta estilo ezberdinen bitartez Euskal laburmetraiak egun bizi duen egoera bistaratu nahi izan du Ongarrik. "Topeka" eta "Basurdea" laburmetraietan (euskaraz) baserri giroa eta bertako pertsonaiak isladatzen dira umorea eta komedia beltza erabiliz. Ahari apostuetan jarri du begirada Asier altuna zuzendari bergararrak eta Ane Miren Muñozek, berriz, bi marinelek basurde bat ehizatzeke dituzten arazoak kontatzen

ditu. Beste bi laburmetraiak zine klasikoan oinarrituta daude. **Aitzol Aramaio** ondarrutarraren "Terminal" laburmetraian autobus gidari bat eta neska "yonki" bat dira protagonistak. Neska desagertu egingo da eta gidaria damu da hari aurrez lagundu ez izanaz. **Azkenik, Jose Mari Goenaga** ordiziarraren "Tercero B" film laburrean gizon eta emakume heldu bat dira protagonistak. Gau laburra gaueko 22.15ean hasiko da eta ordu eta laurdeneko iraupena izango du. Sarrerak 3 euro balio ditu.

EUSKALTEGIAK

Matrikula zabalik AEK euskaltegian

AEK euskaltegiak matrikulazioa zabalik dagoela jakinarazi nahi du. Euskalduntze maila **guztiak, alfabetatze zein** administrazioko hizkuntza eskakizunak lortzeko aukera izango da. Langabetu, ikasle eta gurasoek, matrikula erdia ordainduko dute eta beka lortzeko aukera ere izango dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, joan Plaza Txikian dagoen AEK euskaltegira edo deitu 943 74 12 32 telefonora. Matrikulazio epea, otsailaren 14ra arte izango da.

OSPAKIZUNAK

51ko kinto bazkaria

1951. urteko kontokoek bazkaria izango dute Sigma jatetxean martxoaren 8an eguerdiko 14:00etan. Argibide gehiago nahi izanez gero edo kontsultak egiteko deitu 943 74 85 31 edo 943 74 01 82 telefonotara eta Hilario Agirrebeñagatik galdetu. Izena ematerakoan 10 euro ordaindu beharko dira.

zinc

KARTELDEG

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Harry Potter y la camara secreta"

24, barixakua: 22:15

25, zapatua: 19:00-22:15

26, domekia: 16:00-19:00-22:15

27, astelehena: 22:15

EIBAR

Unzaga

"

24, barixakua: 19:30-22:15

25, zapatua: 17:00-19:30-22:30

26, domekia: 17:00-19:30-22:30

27, astelehena: 19:30-22:15

28, martitzena: 19:30-22:15

29, eguaztena: 19:30-22:15

"Wasabi"

24, barixakua: 19:30-22:15

25, zapatua: 17:00-19:30-22:15

26, domekia: 17:00-19:30-22:15

27, astelehena: 19:30-22:15

28, martitzena: 19:30

29, eguaztena: 19:30

BARRNEAN ez du gerta litekeen enuntziadurik
DUZUN



"Harry Potter y la camara secreta"

Zuzendaria: Chris Columbus.

Antzezleak: Daniel Radcliffe, Emma Watson, Kenneth Branagh. J.K. Rowling idazle arrakastatsuen liburuetan oinarritutako bigarren filmea dugu honakoa. Harry Potter nerabezaroan sartzen ari da jadanik eta izaki arraro baten esanei entzungor egin ostean, Hogwartseko magia eta intxisu eskolara itzuliko da. Eskolan dagoela ikasle batzuk harri bihurtzen hasiko dira. Gertakari misteriotsu honen arazoia eskola beraren istorian dagoela izkutatutik dirudi.

N
+
"



A

ste honetako erretratu zaharra Juani Bastidak laga digu. Argazkia 1960. urteko ezkontza baten ateratakoa da. Garai hartan ere, emakumeak dotore asko joaten ziren ezkontzetara. Argazkian ikusten den bezala, umore ona ez zaie falta emakume hauei. Otsotxiki eta Mintxeta familiakoak dira erretratuan ageri zaizkigun emakumeak. Gogora dezagun zein diren emakume hauek: Ezkerretik eskumara: Maria Kortaberia (t), Loreta Kortaberria, Maria Luisa Laskurain, Petra Txurruka, Pepita Txurruka (t), eta Sole Txurruka.



ESKERTZA

2003ko urtarrilaren 17an, 78 urte zituela hil zen **JUSTO SORALUZE LEYARIST**iren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Makina
Erremintaren
Institutua

Instituto de
Maquina
Herramienta

Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1
20. 870 ELGOIBAR
Gipuzkoa

Tel.: 943 74 82 64
Faxa: 943 74 41 53

ingenieria@fmh.es
www.fmh.es


cesi aquitaine
poitou-charentes



2003 / 2004 IKASTURTEA

TXANDAKAKO ENPRESA

INGENIARITZA



BILERA

INFORMATIBOA:

Urtarrilaren 29an,
prestakuntzaren ezaugarriak eta
sarrera-baldintzak azaltzeko:

- 18.30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioen bisita.
- 19.00etan bilera informatiboa

- **Enpresarekin elkarlanean** garatutako lanbide-proiektua.
- **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik.
- **Emaitza erakargarriak:** gehiengoa lanean, % 40 zuzendaritzako ardurekin.

Maiatzaren 23ra arte MATRIKULA EPEA ZABALIK

ZEZEN-BIDE AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

1 0:00etatik-1 2:30era

1 5:00etatik-20:30era

Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 455 20600 EIBAR

**Elgoibarko toki onenean,
kalitate haundieneko bizigunean,
LASTER eraikiko dugu
bilatzen duzun etxebizitza.**

MADALA 2. Fasea



Lzr 943 81 21 67

URTAGO PROMOZIOAK, A.I.E.